



IPUIN ETA KONTAKIZUN LABURREN LEHIAKETA

14 URTETIK
25ERA BITARTEKO
GAZTEENTZAT

OINARRIAK



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Udala

GAIA

Gaia librea da eta generoa fikziozkoa. Zure istorioak irakurtzeko eta bertan murgiltzeko prest egongo gara.

PARTE HARTZAILEAK

Gasteizen bizi diren edo bertan ikasten duten 14 urtetik 25era bitarteko gazteak.

Aukeratutako eta saritutako parte-hartzaileei Gasteizen daudela egiaztatzeko agiriari eskatu ahalko zaizkie.

Parte hartzaileek ezin dute saria jaso bi urtez jarraian.

KONTAKIZUNAK: MODALITATEAK ETA SAILAK

Bi modalitate izango dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Modalitate bakoitzean bi sail izango dira: 14-18 urte eta 19-25 urte bitartekoak. Egileek lan bakarria aurkeztu ahal izango dute modalitate bakoitzera. Ipuin berbera ezingo da bi modalitateetara aurkeztu.

Aurkeztutako lanek gehienez sei orrikoak eta gutxienez bikoak izan beharko dute, tarte bikoitza formatu arrunta erabiliz (arial 11) orriaren alde bakarretik (paperean bidaliz gero). Jatorritzakoak eta argitaragabeak izan beharko dute; hortaz, ez dira aintzat hartuko beste sariketaren batera aurkeztutakoak edo inoiz saritutakoak. Aurkezten diren lanek fikziozkoak izan beharko dute.

LANAK BIDALTzea

GAUBen (Gazteen Argibideetarako Udala Bulegoan) aurkeztuko dira, Espainia plazan, 1, 01001. Orduetgia: 10:00- 14:00 (astelehenetik ostiralera), eta 17:00-19:00 (asteartetan eta ostegunetan).

Paperezko formatuaren lanak gutunazal baten barruan aurkeztu beharko dira, HIRUNA ALE eta izenpetu gabe; baita itxitako beste gutunazal bat ere, egilearen izen-abizenak, NANaren fotokopia, adina, helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa erantsiz. Bi gutunazal kanpoaldean ezinbestekoa da "Gazte-Hitzak" erreferentzia, modalitatea (euskara/ gaztelania), egilearen adina eta lanaren izenburua jartzea.

Formatu elektronikoa, lanak gaztehitzak@gmail.com helbidera bidali beharko dira, argi adieraziz: idazkiaren izenburua, egilearen izen-abizenak, NANaren argazkia edo fotokopia, adina, helbidea eta telefonoa.

JASOTZEKO EPEA

2019ko otsailaren 8tik martxoaren 20ra arte, biak barne.

Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen datu pertsonalen fitxategian sartuko direla jakinarazten dizu Vitoria-Gasteizko Udalak, EKINTZEN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA izena duen fitxategian zehazki, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez. Fitxategi horren helburua udal eskumenen alorrean Udalak antolatutako kultur edo gizarte ekintzak kudeatu, zabaldu eta sustatzea da. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu –dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu–, jo ezazu Udaletxeko Argibide Bulegora (Teodoro Dublang 25 – 01008 Vitoria-Gasteiz) edo Herriartari Laguntzeko Bulegoetara.

SARIAK

Sari bat emango zaio modalitate eta sail bakoitzari eta honakoa izango da:

- 300 euroko balioa duen balea, liburuetan gasatzeko.
- Norberaren narrazio propioa osatzeko, **Katixa Agirre** (euskarazko modalitatean) eta **Álvaro Arbina** (gaztelaniazko modalitatean) idazleek emandako laguntza eta sormen orientazioa.
- Saritutako lanak udalaren web gunean zabalduko dira, baita paperezko formatuan ere. Liburuxkak argitaratuko dira kontakizunekin zerikusia duten ilustrazioak erabilita.

EPAIMAHAI

Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuak izendatutako epaimahaian Katixa Agirre eta Álvaro Arbina egongo dira. Epaimahaian lanen originaltasuna balioztatuko du, baita estilo artistikoa ere.

EPAIA

2019ko maiatzaren 14an argitaratuko da epaia udalaren webgunean (www.vitoria-gasteiz.org/gazteria).

SARI BANAKETA

Maiatzaren 25ean, 18:00etan, Goiuri Jauregiko Martin de Salinas aretoan. Bertan, Katixa Agirre eta Álvaro Arbina egongo dira.

OHARRAK

Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue: gaztehitzak@gmail.com

Aurkeztutako kontakizunak Gazteria Zerbitzuaren esku geratuko dira, eta kontakizun horiek erabiltzeko eskubidea beretzat gordeko du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.

Lehiaketaren antolatzaileek kontakizunen baliokotasuna erabakiko dute, eta kontakizun batek baldintza teknikoak beteko ez balitu edo arrazoiren batengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren ispirituarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.

Saririk jaso ez duten lanak antolakuntzak sunsितुko ditu, bertan edukitako oker ez erabiltzeko. Egileak, izena ematerakoan, espresuki adieraziko balu, kopia itzuli ahal izango zaio.

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.

Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri haue-tan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.